

Bertsolarien lehenengo grabazio komertziala

Jaione Landaberea



Eresbilek arbelezko bost disko erosi zizkion Mariano García Díaz Madrilgo antikuariori, 1990eko urtarrilaren 4an. 1.500 pezeta ordaindu zituen ale bakoitzeko. Disko horien artean, RS 538 katalogo zenbakiarekin, Regal zigiluarekin Donostiako Columbia Graphophone Companyk argitaratutako bertso batzuen lehenengo grabazio komertziala zegoen. Urte batzuk geroago, Eresbil artxiboaren 25. urteurrena zela eta, artxiboaren grabazioen aukeraketa batekin, edizio pribatu bat egin zen CDan, urte horietan Patronatuaren kide izandakoei oparitzeko. Hautaketa horretan, Asteasuk eta Txirritak egingako *Bertso-berriak* zeuden.

Xenpelar Dokumentazio Zentroak diskoaren beste ale bat bazuela bagenekien. "Asteasu", Pello Errota bertsolari ospetsua zela uste zuten. Uste horren oinarrian bazeuden elementu batzuk: batetik, Pello Errota Asteasukoa zen, eta bestetik, grabazioan ahots batek "bota Pello" esaten duela entzuten da. Txirrita eta Pello Errota elkarrekin askotan aritu zirela ere kontuan izan beharreko datua da.

Hipotesi honek sinesgarritasun osoa luke datu batengatik izan ez balitz. Pello Errota 1919an hil zen eta disko hau, ezbairik gabe, urte batzuk geroago argitaratua izan zen.

1923ko abuztuaren 30ean Juan Iñurrietak Columbia Graphophone Company sortu zuen Donostian. Enpresa honek Regal zigilua erabili zuen bertako erreperorioarentzat: 1924ko maiatzean, Gabriel Olaizolak abestutako Euskal kantu herrikoiak (RS 106, RS 108, RS 109, RS 110) eta Celestino Sarobek (RS 113, RS 114, RS 116, RS 117, RS 118, RS 119) eta Secundino Esnaolak zuzendutako Donostiako Orfeoiarenak (RS 111, RS 120, RS 121, RS 122, RS 123, RS 131) argitaratu zituen. 1924an trikitixa diskoak ere argitaratu zituen: Gipuzkoako Trikitixa (RS 126, RS 127, RS 573) eta Zumarragako Trikitixa (RS 128, RS 129, RS 130). Urte berean argitaratu zen Esnaola maisuak Columbia Banda zuzenduz Donostiako danborradaren diskoa (RS 132, RS 133, RS 134). Garaiko txistu grabazio batzuk Elola eta Landalucerenak dira (RS 230), baita Bilboko Txistularienak ere (RS 221). Geroagoko katalogo zenbaki batekin,



Pello Errota Konpartsarenak (RS 542, RS 546), Usandizaga Errondailarenak (RS 541, RS 686) eta Errezilgo gaiteroenak (RS 535, RS 545) argitaratu ziren, baita arestian aipaturiko Asteasu eta Txirritaren diskoa ere (RS 538). Garai horretakoak dira Anselmo Ojembarrena gitarra jolearen diskoak (RS 574, RS 687) eta Secundino Esnaolak zuzendutako Donostiako Orfeoiaren grabazio berriak (RS 575, RS 576, RS 577, RS 578). Euskal musikaren disko hotiek, zarzuela, opera eta dantzatzeko beste diskoen artean argitaratu ziren.

DISCOS VASCOS

- ELECTRICOS -

Formidable sonoridad
"SIN RUIDO"



"BERSOLARIS" :-: "TXISTULARIS"

"GAITEROS DE REGIL"

COMPARSA "PELLO-ERROTA"

y "TRIKI-TRIXA"

Audición y venta:

CASA INURRIETA

GUETARIA, 5 ————— Teléf. 10-317

Iragarkia. "La Voz de Guipúzcoa", 1927-XI-6.

Lehenengo diskoen grabazio prozesua akustikoa zen. 1925. urtearen erdira arte ez zen mikrofonorik eta anplifikadorerik erabiltzen grabazioetan. Horiekin hasi ziren grabazio elektrikoak, lehenengo disko akustikoak baino kalitate handiagoak. Hori dela eta, enpresa batzuek diskoen grabazio elektrikoak ezkutatu zituzten hasiera batean, grabazio akustikoen stockaren salmenta arriskuan ikusten zutelako eta merkatuaren beste


hainbat baldintza zirela medio. Dena den, hori ez zen Columbia Graphophone Company enpresaren kasua izan. Enpresa horrek, 1927ko azaroaren 6an, Regal markarekin "La Voz de Guipúzcoa" egunkarian iragarki hau argitaratu zuen: "Discos vascos eléctricos de formidable sonoridad y sin ruido (Bertsolaris, Txistularis, Gaiteros de Regil, Comparsa Pello Errota y Triki-trixa)". Disko horiek guztiak enpresa honen 1930eko katalogoan agertzen direla egiaztatu dugu (katalogoak urte horretako ekaina arte argitaratutako disko elektriko guztiak biltzen ditu). Espainiako Liburutegi Nazionalaren 1924 eta 1926 urteetako katalogoak kontsultatu ondoren, diskoaren erreferentziarik ez dela agertzen ere egiaztatu dugu; ondorioz, argitalpenak 1926 eta 1930 bitartekoa izan behar duela froga daiteke.

Disko horretan Pello Errota agertzen ez zela ikusita eta artxiboan ditugun bertsolaritzari buruzko erreferentzia obra guztietan "Asteasu" izengoitiarekin ezagututako bertsolariaren arrastorik ez dela ikusita, katalogatzaileoi egoera hauetan gelditzen zaigun irtenbide bakarra hartzea erabaki genuen: azaltzen dena transkribatzea. Kasu honetan "Asteasu" izenarekin autoritate bat sortu genuen.

Urte batzuk geroago, Pablo Sorozabalen "Mi vida y mi obra (1986)" autobiografia atsegingarriaren irakurketa eginez, 16. orrialdean, bere aitaren gainean diharduen pasarte batean, honako hau irakur daiteke:

"Tuvo una época en la que fue conocido como bertsolari en las tabernas —parnaso de nuestros bardos populares— bajo en apodo de "Asteasu" y "Porthale". Siento no tener ni conocer ninguna poesía suya, pero sí recuerdo que su vascuence sonaba a música cuando hablaba. Mis padres apenas sabían chapurrear el castellano..."

Jose María Sorozabal Larraulen jaio zen, Asteasutik bi kilometro eta erdira dagoen herrian. Bera izan al zen grabazio honen egilea? Hipotesi onargarria dela uste dugu. "Asteasu", bertsolari baten izengoiti bezala azaltzen den iturri bakarra da. Hala ere, badakigu ikerketa sakonago baten beharra dagoela hipotesia bere osotasunean frogatzeko.



Jose Maria Sorozabal "Asteasu".



Jose Manuel Lujanbio "Txirrita".

Hipotesia baieztatzeko lagungarri diren beste hainbat elementu zirkunstantzial ere badaude. Pablo Sorozabalek eta Secundino Esnaola Donostiako Orfeoiaren zuzendariak harreman estua zuten eta garai hartan Columbiak egindako grabazio askoren protagonistak izan ziren biak. Musikagile donostiarrak hau zioen bere autobiografiaren 107. orrialdean:

"Por esas fechas [1924-1927] yo me reunía a diario en la Sociedad Gastronómica 'Ollagorra' con Esnaola. Muy a menudo cenábamos juntos y nos bebíamos buenas botellas de sidra mientras charlábamos de música y hacíamos proyectos."

Juan Iñurrietak, Columbia Graphophone Companyaren jabeak, merkatu berriak ikusteko sena handia izan zuela badakigu, eta merkatu berri baterako aukerak ikusi zituen musika herrikoia-ekin. Ordura arte, musika klasikoak, orkestrarako musikak, ganberako musikak eta operaren

ariek osatzen zuten produkzio nagusia. Iñurrietak, ordurako Esnaolak zuzendutako grabazioak argitaratuak izaki, litekeena da bertsolarien diskoa argitaratzeko zuzendariari laguntza eskatu izana. Grabaziorako Txirrita aukeratzea ez da harrizkoa. Ordurako 67 urte bazituen eta oso ospetsua zen; Asteasu hori, berriz, Jose Maria Sorozabal izango ote zen?

Txirrita eta Asteasuren disko hau ezagutzen den lehenengo bertso soinu-argitalpena da. UNESCOren babespean, Manuel Garcia Matosek Bizkaian bertsolari batzuk erregistratu zituen 1959an. 1962an, Columbiak Basarri eta Patxi Barberoaren binilozko diskoa argitaratu zuen. 1967an euskal diskoetxe batek, Usandizagak, bertsolarien LP oso bat argitaratu zuen: "Bertsolari doñuak" izenburupean, Azpillaga, Basarri, Lazkao-txiki, Lekuona (A), Lekuona (J.M), Mattin, Uztapide eta Xalbadorren bertsoak jasotzen ditu.

Hemen utziko dugu hipotesia. Txirrita eta "Asteasu"ren fonograma honen azterketa (letra, fonetika, tinbrea, eta abar) adituek egitea falta da. Adituen eskura dago Eresbil artxiboak gordetzen duen grabazioa.